

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Hutsen zuzenketa 2020ko irailaren 30eko ALHAOn (111 zk.) argitaratutako 2020/2737 iragarkian, zeina baita honi buruzkoa: "Olabarriko hondakin-urak Iruña Okako eskualdeko HUAra isurtzeko konexioari buruzko proiektua aldatzen duen" proiektuak eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara

Hutsa antzeman denez gero 2020ko irailaren 30eko 111 zenbakiko ALHAOn argitaratutako iragarki horretan, ez baita osorik argitaratu, osorik argitaratzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 5a

Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren burua
JUAN DANIEL MARTÍNEZ MONGE

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

"Olabarriko hondakin-urak Iruña Okako eskualdeko huara isurtzeko konexioari buruzko proiektua aldatzen duen" proiektuak eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak, 2020ko abuztuaren 3an, 412/2020 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

"Olabarriko hondakin uren isuria Iruña Okako (Araba) HUAra lotzeko proiektuaren proiektu aldaturako" okupatu beharreko azalera handitzea". Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 10eko 375/2018 Erabakiaren bitartez, erabaki zen hasierako onespina ematea "Olabarriko hondakin uren isurketak Iruña Okako eskualde HUAra lotzeko proiektuaren proiektu aldatuak" eragindako ondasun eta eskubideen zerrindari.

Geroago, ekainaren 11ko 383/2019 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen aipatutako proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrinda, eta haiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratu zen, desjabetu eta aldi batean okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo iraungiarazteko.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak honako txosten hau eman zuen, hitzez hitz, 2020ko ekainaren 25ean:

"Obrak egiten diren bitartean, P2.2 putzua proiektuan adierazitako lekuan egitea ezinezkoa denez, sakonki eragindako zerbitzuak agertu direlako, proiektuan jasotzeko trazadura doitu behar da, eta, horren ondorioz, hasiera batean 1/000 finkan jaso gabeko erregistro putzu berri bat egin behar da, P2 – P2.2 kolektorearen tartean iskintxo bat egiteko.

Aurreko txostena ikusita, eta adierazitako zabalkuntza egiteko, desjabetze espedientearen 1/100 finka sortu behar da.

Nahitaezko Desjabetze Legearen eta Nahitaezko Desjabetze Arautegiaren 15. artikuluen arabera, okupazioa zabaldu daiteke handitzeak egiteko ezinbestekoak diren ondasunei. Kasu honetan, horiek desjabetzearen helburu, obra edo zerbitzuari ere atxikiko zaizkie. Modu berean, NDLk ezartzen du, desjabetze espedientea 52. artikuluan jasotako premiazko prozeduraz izapidetzen denean, ulertuko dela beteta dagoela desjabetu beharreko ondasunak okupatu beharraren adierazpen izapidea, onartutako eta geroago aldatutako proiektu eta zuinketen arabera; eskubidea emango du berehala okupatzeko. Beraz, desjabetzearen handitzea izapidetu behar da, premiazko prozedura bidez.

Aztertu dira Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditu dagoela adierazteko idatzitako eta Desjabetzaren Atalak egindako txostenak, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, eta bat etorritik Ordainketak egiteko agindu formalarekin eta materialarekin zerikusia duten zenbait ahalmen foru diputatuen esku uzten dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuak xedatutakoarekin,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Olabarriko hondakin uren isuria Iruña Okako (Araba) HUAra lotzeko proiektuaren proiektu aldatutako" okupatu beharreko azalera handitzea, l. eranskinean xedatutako eran, nahitaez desjabetzeko, aldi baterako okupazioetarako, zortasunak jartzeko eta, horien guztien ondorioz, aldatu beharrekoak aldatzeko.

Bigarrena. Esleitzea 89,31 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuko 50106.5300.6000001 "desjabetze hidraulikoak" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105-2698/000.20.1.20), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Hirugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eragindako finkei dagokien balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetzaren Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori gorago aipatutako lerro eta xedapen erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean."

Laugarrena. Foru agindu honek administrazio bideari amaiera ematen dio, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, honako hau jakinarazi ondorengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke egintza hau agindu duen erakundeari berari, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsuaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Iruña de Ocaño Udaletxetako lokaletan ager daitezzen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 23a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

OLABARRIKO HONDAKIN-URAK IRUÑA OKAKO ESUALDEKO HIARA ISURTZEKO KONEIXIARI BURUZKO PROIEKTUA ALDATZEN DUEN PROIEKTUA
PROYECTO MODIFICADO DEL PROYECTO DE CONEXIÓN DE VERTIDOS DE AGUAS RESIDUALES DE OLLÁVARRE A LA EDAR COMARCAL DE IRUÑA DE OCA.

FINKAREN ZK.	Nº FINCA	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBIETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA M2		EGUNA	ORDUA
			POLIGONOA	LURSAILA			BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA		
		NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES		AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	DEFINITIVA	TEMPORAL	DÍA	HORA
			POLIGONO	PARCELA			SUPERFICIE AFECTADA M ²	SERVIDUMBRE		
1/100	2	CABALLERO ARNAIZ ANUNCIACIÓN SAEZ DE CORTAZAR CABALLERO, JESÚS SAEZ DE CORTAZAR CABALLERO, MARIA JESÚS SAEZ DE CORTAZAR CABALLERO, LUIS MARIA SAEZ DE CORTAZAR CABALLERO, MARIA OLGA SAEZ DE CORTAZAR CABALLERO, MARIA JOSÉ ORTIZ DE URTARAN SAEZ DE CORTAZAR, NUPRIA ORTIZ DE URTARAN SAEZ DE CORTAZAR, ALVARO	2	211	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO	9,00		26/10/20	10:00

ESP/EXPT.E. 2019/1-A